



Michael Klant artistak Condor legioko kide izan zuen aita, eta, hegazkin bat baliatuz, Berlingo zeruaren irudi bat jarriko du hilaren 21an Gernikako zeru gainean hegana, errekontziliaziorako.

Gernikako zauria zeruz jostea

Michael Klant artista, lehen erroan, lankide izan dituen euskal herritarrekin, Gernikan margotutako Berlingo zeruaren irudiaren gainean. MONIKA DEL VALLE / FOKU

berria laguna

Segurtasuna lanbide heziketaren oinarria da. La seguridad es la base de una buena formación.

Arreta profesionala eta personalizatua ematen dugu. Ofrecemos un asesoramiento cualificado y personalizado.

molde LANERAMODU BARESA. PROTECCIÓN LABORAL.

Nafarroa Etorbidia, 10 • 20110 Pasaia (GIPIZKOAKA) • Tel.: 943 341 035 • www.molde.eus

tzen zuten 100 metro koadroko margolan bat jarri zuen hegana Berlingo zeruan, apirilaren 26an -bonbardaketaren urteurren- eta Berlingo zeru zati bat airearatu du orain irailaren 21ean, Gernika eta inguruko herrien gainean hegana -Bakearen Nazioarteko Egunean-. Gernikako Astra gunean aritu da horretarako lanean asteotan, Damaris Pan artistarekin elkarlanean, eta Gernikako Lobak elkarte, Astraguneko eta Gernika Gogoratuz taldeko hainbat ordezkari laguntzarekin; prest dute dena jandak aireratzeko. «Hau da nire lanik pertsonal eta politikoena», aitortu du Klantek.

Baina bihurria izan da Gernikaraino bidea. «Ez dakit nola kostatu zaidan hainbeste lan honetara iristea», adierazi du lehenik, eta azalpen eman du gero: «Pentsatzen dut lotsa moduko bat sentitzen nuelako izango zela». Aspaldi zuten aitaren historiaren berri, eta hamar kadak dira zeruekin lanean hasi zela, baina orain arte sekula ez zailo bururatu bi muturak elkarrekin lotzea.

Behartutako soldadu

Grabagailua martxan jarri, eta ia ia jarraian eman du bere istorioen berri artistak.

«Aitak asko hitz egiten zuten 1936ko gerrari buruz; Condor legioko kidea zen. 22 urte zituen, eta behartuta joan zen armadara. Soldaduska derrigortuta egin behar izan zuten lehenetarikoa bat izan zen, nahiz eta familiarren denda saltzaila izateko zen, berez. Gaztelera ere ikasi zuen, eta horregatik hautatu zuten derrigorezko soldaduska egin ostean. Uniformerik gabe egin zuten bidaia St Louis luxuzko itsasontzian, inork ezin zuelako jakin Hitler tropak bidaltzen ari zenik, eta, aitak esaten zuenez, eurek ere ez zekiten nora bidaltzen zituzten. Ongi eman zieten jaten, ordain handiak jasoko zituztela esan zuten. Alemaniatik abiatu, Frantzia eta Ingalaterra hegaldia zeharkatu, Portugal pasatu, eta Cadizera heldu ziren (Espainia). Aitak autobiografia bat utzi zuten idatzita, eta hogei orri inguru eskalari zizkion 1936ko gerrari. Bigarren Mundu Gerran ere parte hartu behar izan zuen horren ostean; Errusian ere egin zen, baina gerra hark eragin zion zirrararik handiena».

Patxadaz mintzo da Klant. Ia-ia etekin egin beharrik gabe aletzen du etxeko historia; atsegina da haren jarria, eta igartzten da Astran eroso sentitzen dela. Pablo Picassoen Gernika koadoroaren

bariazioak horretan, bonbardatutako hirlean irudi bat zutabe batean, eta kideen silatasuna aretoan. Jarraitzen du artistak.

«Aitak maiz hitz egiten zizun horri buruz guri ere, baina nik ez nion sinesten: boluntario joango zela esaten nion, inork ezin zuela behartu. Baina azken bi urteotan hainbat historialarik baieztatu didate zurekin egia izango zela, eta behartuta joango zela. Eta lasaitua izan da hori niretzat. Gaztetan, noski, kontrako bandoan nengoan. Nazioarteko Brigaden aldean nengoan ni politikoki, eta oraindik ere hala nago; soldaduska egiteko txanda iritsi zitzaizkidan, uko egin, eta zerbitzu sozial batzuk eginez libratu nintzen. Altari ez zion grazia handirik egin horrek. Berak ere ez



Aitak asko hitz egiten zuten 1936ko gerraz. Condor legioko kide zen; behartuta joan zen armadara»

Michael Klant
Artista

«Klantek garrantzi handia ematen dio talde lanari, baina inpresio estetiko bat ere sortu nahi du piezarekin»

Damaris Pan
Artista

zuen gerrara joan nahi izan, eta beti zebilen egoera horretan nola bukatu ote zuten bueltara, baina ez zuten egin horren aurka. Il. Mundu Gerraren amaiera aldera solilik hasi zen aginduak betetze-ari uko egiten. Ofiziala zen ordu-rako, eta hainbat ikasle zituen bere kargu. Errusia aldean ibili ziren. Agindurik jaso gabe erabaki zuten handik erretiratzera. Idatzita utzi zuten hori ere aitak, baina sekula ez nion sinetsi, harik eta 2000. urte inguruan ikasle izan zuten mutil haietako batek etxera deitu zuen arte, eskerrak emateko. Ikasle ohi horrek kontatu zuenez, urtero biltzen ziren hain ibiliko guztiak, eta urtero egiten zuten topa gure aitaren oheretan, bizitza salbatu zielako. Oso pozgarria izan zen hiri ontzatuta niretzat, zeren eta, aitak idatzita utzi zenez, bere seme Michaelentzat idatzit zuen autobiografia hura; niretzat, alegia, ez niolako sinesten».

Baina urteak behar izan ditu puntu horretara heltzeko.


Plazer estetiko hutsak eraman zuten lehen zera trukea egitera, 1999an, eta denbora behar izan



Artistak apirilaren hegaldatu zuen Gernikako zeruaren irudia Berlingo zeruan. MICHAEL KLANT

HEGALDIAREN IBILBIDEA

Irailaren 21a, larunbata



du proiektua Gernikaraino ekartzeko. Klantek lehen trukea du gogoan. «Floridan nengoan (AEB), talde erakusketak batean parte hartzen, eta hondartzara joan ginen irekiera ekitaldiaren ostean. Han ikusi nuen publizitate haztekin horietako bat hainburgesa zuten publizitateak egin, eta pentsatu nuen mezu horrek ez zuela merezimendurik hor egoteko, eta arteak egon behar lukeela hor zera zeharkatzen. Zeru truke bat planteatu nuen AEBetara eta Alemaniako artisten artean».

Gero heldu zen korapiloa.

Zeru etsaituak

«Lehen lan hura egin nuen, eta polka izan zen, baina AEB eta Alemaniara herrialde lagunak dira, eta iruditu zitzaizkidan ez zela aski politikoa». Eta orduan sortu zitzaion galdara. «Zeratik ez trukatu etsaituta dauden herrialdeen zeruak?». Kubakota AEBetako zeruekin egin zuten salakera,

baina kale egin zuten asmoak. Iraken gerra hasi, eta horrek ezinezko bilakatu baitzuten beharrezko zirenen baimenak lortzea.

Eta etsi egin zuten orduan. Tarte batez.

Sasoi batez, utzi egin zituen hegaldiak, eta, alaba izan ostean, hasi zen pixkanaka bueltatzen: testuak aireratzeko, lehenik, eta bide hori amaitutzat eman zuten etorri zitzaion Gernika burura. Duela bi urte, Portugalen zegoela. Eta geroztik dena izan da email, solasaldi eta telefono dei, artistak garrantzi handia ematen biltzeko elkarlanari.

Hala sartu zen Damaris Pan artista eta EHUko pintura irakasle bizkaitarra proiektuan. «Michaelek [Klantek] emaila idatzi zidan bere proiektua azalduz, eta Berlinera zerau pintatzen laguntzera joateko gonbita egin izan. Margotu beharreko zeruak itxura piktorkoia izan dezan lortzea izan da nire eronka hasieratik». Pannen hitzetan, nagusiki «teknikoa» izan da bere lana. Hala izan zen Alemanian apirilaren, eta hala izan da orain Gernikan ere. «Berak garrantzi handia ematen dio talde lanari, baina inpresio estetiko bat ere sortu nahi du». Errealista da margolanarekin bilatzen duten efektua, eta akrilikoa erabili dute horretarako, Astrako aretoan. Helduleku luzeko brotxak han-hemenka, pintura urdin eta zuriz betetako potoak, eta margolariak hodeiak zapaltzen.

Gernikarren harrera beroa

Klantek heldurra sentitu zuen Euskal Herrira lehen bisita egin baino lehen. «Kontzentziaz ez nuen lasai, eta ez nekien nola hartuko ninduten hemen; azken finean, Condor legioko soldadu baten seme naita, eta ez nekien zer erreakzio izango ote zuten hemen jendeak. Eta etorri nintzenen sekulako lasaitua sentitu nuen! Ongi hartu ninduten!». Ume zela bonbardaketaren lekuko izan zen

Luis Iriondo ere ezagutu zuen, Gernika Gogoratuz elkartearen kidea. «Gogoratzen zuten guztia kontatu zidan, eta oso ongi hartu ninduen».

Alemanian lagun izan zituen, esate baterako, Gernika Deutsch-Baskische-Kulturverein elkarte-kideak, eta bidelagun izan ditu hasieratik Gernika Gogoratuz elkarteok ere. «Proiektua guztiz bat dator gure lan ardatzekin», onartu du Andreas Schäferrek. Hamarkada bete baino gehiago darama Gernikako elkartearen lanean, eta, bera ere alemaniarra izanik, maiz aritzen da nazioarteko harremanak lantzen; oraingoa, baimenak lortzea eta ekitaldi-erakundeak lotzea izan ditu egiteko nagusi, gernikar doinuak euskara perfektuan azaldu due-



Bonbardaketaren ilobak gara gu, eta Condor legioko soldadu baten semearekin elkarlanean egotea sekulakoa da»

Maitane Azurmendi
Lobak elkarte kidea

«Sormena baliatuz solilik heldu ahal izango gara bakera, eta bakea izango da gizakiaren artean erraldola»

Andreas Schäfer
Gernika gogoratuz elkarte kidea

nez. «Artibismoa aipatzen dugu guk maiz, eta Klanten proiektua horren adibide argia da. Artelan bat da, eta aldi berean ekintza bat ere bada. Gure ustez, sormena eta sorkuntza baliatuz solilik heldu ahal izango gara bakera, eta bakea izango da gizakiaren artean erraldola, eta izango da beti artelan amaigabea».

Bakea. Errekontziliazioa. Artea. Eta, halere, asmo handi horien artean, Klantek umore puntu bati ere uzten dio zirikritua. «Lanak badu bere puntu absurdoa ere, noski. Zeru puska bat jarriko dugu zeruan hegatu! Gustatzen zait puntu absurdo hori ere. Lanak ez du zertan egotea politikoa izan. Ederra da zeru puska bat zeruan jartzea, berez, eta gozatu daiteke proiektuak atzean daukan historia ezagutu gabe ere. Ongi dago hori ere. Horregatik nahi dut margolana ongi eginda egotea ere».

Eta, hilaren 21a heldu artean, orainoz, Astra guneko bigarren berlingo zeruak ikusi daitezke Soliriko hodeiak, zabal eta ederrak, erabat zamagabe, baina solilik itxuraz.